




Konta Kontari





NEGUKO BARAZKIAK ETA FRUTAK

LEHEN HEZKUNTZA



Negua abenduaren azken egunetan hasi
eta martxoaren azken egunetan
bukatzen da.



Urtaro hotza  eta egun laburrekoa 
bada ere, gure baratzeak ez dira erabat husten.
Bertan hainbat barazki eta fruta aurki
ditzakegu.



Baina, zein fruta eta barazki biltzen dira neguan?

NEGUKO BARAZKIAK



BARATZEKO BARAZKIAK

Neguan barazki berdeak eta zuriak dira nagusi. Baratzetan ondo hazten diren barazkiak dira, bere hostoak eta zurtoinak sendoak eta lodiak direlako.


Adibidez, brokolia, erromaneskoa, apioa, kardua, orburua, bruselaza edo porrua.



Baita azalorea, aza, azaburua edo tipulak ere.



Azkenik, azpian hazten diren barazkiak:
azenarioa, arbia, erremolatxa edo errefautxo.




NEGUTEGIKO BARAZKIAK


Hotzarekin hostoak izoztu daitezkeenez, jende askok negutegiak erabiltzen ditu barazkiak hotzetik babesteko. Hosto fin eta handiko barazkiak dira egokienak negutegietan hazteko, besteak beste: letxugak, zerbak, eskarolak eta ziazerbak.



NEGUKO TUBERKULUAK




Patata oso goiztiarrak.



Valentzian "horchata" egiteko
erabiltzen den txufa.



NEGUKO FRUTAK



Neguan zuhaitz gehienek hostoak galdu dituzte eta hiru hilabete hauek lotan ematen dituzte, udaberriak esnatu arte.




Baina ez zitrikoak, ez. Zuhaitz hauetako frutek kolorez betetzen dituzte gure dendak eta sukaldeak.

Badakizu zer fruta diren zitrikoak?

ZITRIKOAK

Ziur askotan jan dituzula: laranja, limoia, mandarina,
lima eta pomeloa dira Euskal Herrian ikusienak.




Zatika janda edo zukua eginda, denak oso
onak dira.






Badira beste fruta batzuk
ere neguan jaten direnak.
Abenduan, mahatsak ditugu.
Jende askok urte-berri eguna
ospatzeko hauetako hamabi
jaten ditu. Zitrikoak bezala,
zukua oso gozoa dute.

Neguan oraindik kiwiak daude ere.




Aldi berean,
azken aguakateak ematen dira.



Urtarriletik aurrera,
mugurdiak auki ditzakegu
dendetan.

Eta urte osoan, Kanarietatik
datozen banana zoragarriak.



* Neguan dendetan ikusten
diren sagarrak eta udareak
udazkenean bildu ziren.






FRUTA TROPIKALAK




FRUTA TROPIKALAK

Eta gu neguan gauden bitartean beste mundu erdiak, hego hemisferian bizi direnak, bestelako frutaz gozatzen dituzte. Horietako batzuk gure dendetara iristen hasi dira.

Horien artean oso ezagunak egin dira azken urteotan fruta tropikalak.



Marakuia: zapore garratza du eta barrukoa
koilara batekin jan behar da, nahiko likidoa delako.
Kanpotik morea edo horia izan daiteke.




Beste leku batzuetan
pasioi-fruta deitzen
diote ere.

Fisalisa: Bolatxo laranja bat da eta
kanpotik hiru hostoz babestuta
dago. Garratza eta gozo arteko
zaporea du.



Dragoi fruta: kanpotik arrosa da eta barrutik zuria edo arrosa izan daiteke. Ur asko du eta zapore fina eta gozoa du.



Azkenik, **Guaiaiba:** Amerikan du bere jatorria. Kanpotik berdea da eta barrutik arrosa. Bere zaporea suabea da.

Probatu al duzu inoz huetako bat?

AZKEN GALDERAK

Ikusi duzunez, gure baratzeek hainbat aukera eskaintzen dizkigute. Hainbeste barazki izanda, zer plater prestatuko zenuke zuk?

Ba al da asko gustatzen zaizun neguko errezetarik?

Zein da zure neguko frutarik gogokoena?

Fruta tropikalak ezagutzen zenituen?

Konta Kontari

NEGUKO BARAZKI ETA FRUTEN BIDEOA YOUTUBEN IKUSTEKO:



@garaian-garaikoa

IPUIN, JOLAS ETA HEZKUNTZA-BALIABIDE GEHIAGO:

www.kontakontari.com